

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa bat aurrera atera ahal izateko, hainbat gauza hartu behar dira kontutan, gauza horietako bat elkarteak dira. Aplikazio potente bat atera ahal izateko beste enpresa garatuago batzuen laguntza beharko dugu eta horregatik elkarrekin lan egingo dugu, kalitatezko aplikazio bat merkatura ateratzeko.

Gure enpresari optimizazio handiena ateratzeko, Open AI eta Lucid Software Inc enpresekin lan egin beharko dugu, lehen esan bezala, esperientzia handia dute aplikazioen munduan, denbora luzez egon baitira haien aplikazioekin eta oraindik ere mundu mailan oso erabiliak dira.

Alde batetik, Open AI enpresak ChatGPT kudeatzen du, munduan ezagunena den inteligentzia artifiziala, beraz, esperientzia dute inteligentzia artifizialak sortzen, hori kontuan hartuta, haien laguntzarekin eraginkorra den inteligentzia artifiziala hobe bat sortuko dugu. Inteligentzia artifiziala honek besteak baina baliabide gehiago edukiko ditu erabili ahal izateko, hala nola, eskemak egin, apunteak, laburpenak eta galderak erantzun, argazki edo testu baten bidez.

Bestalde, Aplikazioa sortzeko, ezinbestekoa da aplikazioan bertan dauden erabiltzeko aukerak erabilgarriak izatea, horretarako, Lucid Software Inc enpresaren laguntzarekin, gure aplikazioaren IA eskemak eta laburpenak modu txukun eta garbi batean egiteko gai izango da. Lucid Software Inc enpresarekin batera lan egitea pentsatu dugu, Lucichart izeneko aplikazioa diseinatu dutelako. Horrela, beraiek duten esperientzia eta lan egiteko modua guri transmititu ahalko digute, guk gure aplikazioan aurrerakuntzak edukitzeko. Lucid Software Inc enpresak gure inteligentzia artifizialak egiten dituen eskematarako baliabideak eta nola programatzen diren haien aldetik jasoko dugu, oso potentia den inteligentzia artifizial bat sortuz.

Bi enpresa hauekin elkartzeaz gain, bankuarekin harremanetan jarriko gara eta mailegu bat eskatuko dugu gure aplikazioaren oinarri sendoak finkatzeko. Kutxabank bankuari eskatuko diogu mailegua, hainbat bankuekin jarri gara harremanetan baina Kutxabank bankuak eskuratzen dituen baldintzak onenak iruditu zaizkigu banku guztietatik. Bere baldintzak onuragarriak dira, hala nola, interes-tasa lehiakorrak, epe malguak eta komisioen murrizketa, aplikazio bat garatzeko ezin hobeak diren baldintzak dira. Gainera, Kutxabankek prozesuen azkartasuna, aholkularitza pertsonalizatua eta ospe sendoa nabarmentzen ditu, konfiantza eta babesa bermatuz. Halaber, abantaila gehigarriak eta konpromiso soziala eskaintzen ditu, gure erabakia sendotuz.

